

ritzan elkarteak ireki zituen Ikas-tolak pribatuak izaki eta ez administrazarenak. Beraz, eskola libreetarako uzten dute baina gobernuak bere lepotikako jabetasunik gabeak.

Horrez gainera, liburu horrek ez ekarriarren, jakin beharrezkoa zaigu 1992an Europako Kontseiluak herrialdeetako hizkuntz gutituei buruz prestatu zuen gutunari Frantziak betoa jarri ziola eta oraindik hor dagoela geldia. Garai haretan, hizkuntza bat baino gehiago genituen arartekoak Alemaniako parlamentoak deituak izan ginen,

bakoitzak geure iritzia eman zeza-gun. Ongi iritzi ez ezik lehenbait lehen plazaratzea eskatu genuen, baina hara hor politikoen maltzurkeria, batek betoa jarri eta besteek isil.

Ez naiz luzatuko beste hizkuntzetara, baina gainerakoa ere interesgarria deritzat Europaren erdialdea ez ezik ifarraldeko hizkuntzen egoera ere ezagutu dezagun.

Bibliografia aberatsa dakar eta atzekaldea daraman aurkibidea ere bai.

*J. San Martin*

ESTORNES LASA, Bernardo. *Diccionario español-uskara roncalés. Erronkariko uskararen hiztegia*. 24 x 15,5 zm., 500 orr. Nafarroako Gobernua. Hizkuntza eta Kultura Departamentua. Iruña, 1997.

Bernardo Estornés jaunaren *Memorias* zeritzan liburuari, *Egan 3/4* alearen 252-254. orrialdeetan, erreseña egin nionean uste nuen hura bere bizitza zehar etengabeko lanaren bukaerakoa zela, baina bai zera, bere bilketa oraindik hustu gabe zuen eta hara non eskaini digun hiztegi hau.

Gaztarotik bilduz hasi zenaren fruitu heldua dugu, milaka hitz eskaintzen dituena. Eta, ez nolana hiko lana, oso baliagarria baizik. Gure mende honetan galdu zaigun euskalkiaren lekuko eta bertan jasotzen duen erran bati jarraituz irakurleari esan niezaioke: "Libru

zarradituak ezdu ñori ere eratsukitan". Beraz, euskaltzaleon artean ez dadila holakorik gerta liburu honenkin, aberasgarria denez, merezi bai du noizbehinka kontsultarako bederen begiratzea.

Norbaitek esan dezake, bertako "uskara" galdu ondoren, ea hiztegi horrek zertarako laguntzen digun; baina horri erantzunik egokiena Tomás Yerro eta Fernando Pérez de Viñaspre jaunek beraien aurkezpenean ematen dute, ongi dioten bezala: "Bizitzaren eguneroko egitekoetan eta komunikazioan baliagarri izan dadin, euskarak behar du euskalkien indar bizi-

emailea, haien bitartez agertzen baitira, hizkuntza estandarren aurrean, tokian tokiko hizkeren berezitasun antropologikoak". Aurre-rago jarraituko dute esanez: "Liburu hau ez da hiztegi bizigabe soil bat, beste asko bezala. Hiztegi hau da Izaban, egilearen jaioterrian, Erronkarin eta Euskal Herri osoan ongi merezi bezala maitatua den pertsona baten ahalegin luze eta neketsuaren fruitua".

Hitz bakoitzari bere kide zaien sinonimoak ez ezik, esan nahien kontestuak maiz eskaintzen dizkigu, baina baita ere errefracu gisa ezagutu dituen esaldiak ere.

*Egan*-eko nire erreseina haren 252. orrialdean "-(t)ar" erabilerari buruz nioenaz, inork zalantzarik izan ez dezan, ikus hiztegian tokia emanaz, hitzen mailara zerrendaturik, *-ano*, *-ana* jartzen dituen atzikiotan. Baina bestalde, gogoan har, aurkezpengileak dioten bezala: "gaurko erronkarieraren altxor lexikoaren zati ez izan arren, haietan ezagutzen ditugu gure gaztelaniazko solasean, are euskara aspaldi galdu zen eskualdeetan, maiz agertu hoi diren hitz franko". Hala aurkitu ditut nik neuk Nafarroaren mendialdeetako herrietan, eta hartatik nioen, orain Izaban gaztelera mintzo direnak "mingurria" = *frambuesa* esateko erabiltzen dutela eta Bernardoren *Memorias* hartan ez zela aipatzen. Egun aitortu beharra dut uste okerrean nengoe-la, zeren Mugurdi bezala han zeto-

rren 73. orrialdean. Eta orain kon-turatzen naiz Azkuek ere horrela jaso zuela "Particularidades del dialecto roncalés" lanean (*Euskera*, XII, 1931, 364. or.) eta orain berriz hiztegian hor dator: "*frambuesa*. (Bot.), *mugurdi*, *margugorri*".

Hiztegi honetan, B. Estornés jaunak, kontu handia izan du hitz bakoitzari lagungarri kideko zaizkien sinonimo eta urbiletiko aldaerak sartzeaz. Gainera, beti ohartuko gara euskararen hitz arkaikoak euskalki guztietan berdinak edo berdintsuak ditugula. Adibidez, anatomiazko hitzez gainera, mendi, arri, ur, esne(ezne), abere (abre), etxe (etse), ama, aita, aizpa, arreba,... Eta horiek erakusten digute antzina euskalkiak elkarrengandik hurbilako zeudela eta denborarekin gizartearen bizitzako beharrek era orokorrakoak izatera iristeaz gainera, zoritxarrez, lehendik murriztua zen hizkuntzan elkertasunezko politikaz jokatu ezaz, administrazio sakabanatuaren axolagabetasun nabaria, eskolarik eza eta horren ondorioz euskalduna bere hizkuntzan analfabeto izatea eta abar, historia zehar, zatituaz eta pikortuaz edorri zaigula.

*Pastizal* = *Larra* deritzanak leku zabala hartzen du Izabako mendietan. Añamendipean, parajerik altuenetan da Añelarre, eta jarraian beheraxeago *Larra*, non loratzen diren kamamilak eta fruitu heltzen mugurdiak (hango erderan nik *mingurri* bezala bildua). Larraren ifa-

rraldeko Ernaiztik hegoaldeko Ukerdi aldera arte ez da abeltzainen *xaisgu*-rik, saroirik. Hargatik Ukerditik Lintzolarek lepoalderakoari orokorki deitzen zaio Larre-rria. Mapa batzutan "La Herrería" bezala irakurri izan dut, baina uste okerra da hori. Han ez bai da izan aroztegirik, bai ordean zentzu onez erabili izan den *-(h)erri*, berez "tierra poblada" dena; baserri basoko herri den bezalatsu, naiz eta etxe soil bat baizik izan ez. Larrerria, Larratik bereizten du bertan saroiak dituelako, Ukerdikoak bezala. Horregatik, gizona bizi denez (udara partean, noski), horregatik da Larre-rria, bere esan nahia liburuko *población* hitzak argi jartzen digunez.

Izen hoiak hainbeste erabili beharra duten mendizaleek jakin bezate Larrerria zer den eta, aldi berean, "La Herreria"rik ez dela hango toponomastikan. Hori aipatzean, baitere jakin bezate, toki izenak, tokian bertan erabiltzen diren bezala gorde beharrezkoak direla, eta bada ordua Bizkai-Gipuzkoetako mendizaleek Belagoa baztertu eta Belagua onartzeko.

Azkue zenak *Euskera* (1931) agerkarian erronkarieraren bereizkuntzak argitaratu zituenean, lanaren V-VI kapituluetan bildu zituen bertako elestak eta erranak, gero Bernardoren anai Jose zenak "Erronkariko uskaraz elestak" *Fontes Linguae Vasconum* (1982) aldizkarian gehigarri argitara zituenez

baliaturik nonbait, erantsi dizkio hiztegi honi han-hemenka horietarik anitz, hitzaren adierazpenak hala eskatzen zuenean.

Hara hemen horietako adibide batzuk: "etsea urrez, boltsa lurez"; "adexkiderik bage bizitea da orobat nola testigorik bage iltea"; "nolako egurra, kalako sua"; "ezdazak erran lagunari nai ezyuana erran dezayan yauri"; "kasu egiten eztiok itaxur bati, eginen du etse guziari"; "arotzaren etsen, sukaldarreko pala zurez"; "aritik txerkatan da allikoa"; "mandoari eta astoari karga atziri, soingainean zamariari"; "San Juanetako euriak gentan dei ogi eta erdei emoiten arda"; "Santo Laurenti, berroari ilinti"; "nolako tenpra, kalako tentiua"; "beti gezur erraitan dionak, ezdu ñor ere engañatan";...

Liburua taxuz egina da. Aurkezpenaren ondotik badu sarrera luze bat, non aipatzen dituen uskararen berezitasunak, L. L. Bonaparte Printzearen lana, Azkue eta ondotikoena, Julian Gayarrerren kantariaren uskarazko gutuna, Bernardo beraren bilketa lana, hitzen eta gramatikaren zenbait xehetasun agertuz eta Erronkariko uskararen bibliografia osoa eskainiz.

Aurkezpenaz jabetu diren T. Yerro eta F. Pérez de Viñasprek ongi dioten bezala: "Bernardo Estornés Lasa eta Vianako Printzea Erakunde —1940an sortu zenetik gaurko egunerarte Nafarroaren historia, arte eta kultur ondare aberatsaren

defendatzaile eta ezagutarazle izan dena — elkartu dituen lotura luzeak eta hark egin duen euskararen defentsa sutsuak argitzen dute lana Erakunde horren eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren ekimenez argitaratzea, biak Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren zati baitira. Horrela, Nafarroako Gobernuak aintzat hartu nahi du nafar prestu honen lan es-

kerga". Bukatzeko, arrazoi handiz diote: "Bernardo Estornesek eta Koldo Artolak, bere lankide hurbil-hurbilekoak, merezi dute gure benetako esker on sakona beren lanaren merezimendu bereziengatik. Ziur gaude euskara eta nafar kultura maite duten guztiek jakingo dutela aintzat hartzen, gozamenek irakurriz, opari zientifiko hau".

*J. San Martin*

EGAÑA, Andoni; SARASUA, Jon: *Zozoak beleari* (Saiakera). Alberdania, Irun, 1997.

Izenburuak esaera zahar ezagun hura gogora ekartzen duen arren, komentagai den liburuak ez du harekin antz izpirik ere edukinari dagokionean, ez baita hau atsotitz edota euskarazko esapide jatorrak biltzen dituen liburu horietako bat; esaera zahar horrek, ordea, ederki asko definitzen du liburuaren muina: korrespondentzia.

Izan ere, zozoak beleari (hots, Andoni Egañak Jon Sarasuari eta alderantziz ere bai) hainbat kontu jakinarazi, beste hainbeste proposatu, bakan batzuk komentatuz eta gehienak hausnartarazten dizkio, beti ere, eta biek bertsolari izaera dutenez, bertsolaritza mundua funtsa eta oinarri izango delarik.

Jakin badakigu, berez, bi egileak ez direla idazleak, baina bata zein

bestea garaile atera izan dira beti letrekin borrokatu dutenean, beste literatur-lan batzuk prestatuz edo kazetaritzaren munduan kolaboratuz.

Idazleengandik fintasuna eta bertsolariengandik etorria hartuz, bada, bikain atera zaie egileei eskutitzak elkarri trukatzearen saiakera. Emaitzak, ondorengo lerrootan konprobatuko dugunez, ez du zertan inbidiatu beharrik orain arteko literatur-lanek izan dezaketena maila, lan hau sotila bezain esanguratsua baita, sinplea bezain konplexua.

Zertan datza sinpletasun-komplexutasun hori? Edonork pentsa dezake bi lagunek elkarri igortzen dizkioten eskutitzak, lagunarteko zerbait diren aldetik, modu ez-formal eta sinpleenean idatzita